

Antropologo natiboaren inguruko hausnarketa zenbait

BEGOÑA ARIZNABARRETA ORBEA

1. SARRERA GISA

Ikerlan honetan antropologo natiboaren figura aztertzen da. Orain dela gutxira arte, antropologian, erabateko sinesgarritasuna ematen zitzaion antropologo atzerritarrari, berak bakarrik egin baitzezakeen, ustez, kultura baten interpretazioa. Azkeneko urteetan, baina, erronka berri baten aurrean aurkitzen da giza zientzia hau, eta, besteak beste, auzitan dago ea antropologoak bere kulturaren interpretazioa egin dezakeen eta, gaiarekiko harreman estua izanik, ea posible den objektibotasunez aztertzea ezagupen objektua.

Horretaz gain, antropologoak berriemalarekin eta testuarekin duen harremana ere izango dugu aztergai.

Gai hau tratatzerakoan nire asmoa barne-interesetatik abiatzea izan da, ikasteko modurik hoberena norberaren esperientzietan eta interesetan oinarritzea dela uste baitut, ikas-prozesuan baliogarriagoa izateko. Horregatik, antropologia ikasle gisa izan ditudan hainbat esperientzia propio uztartu ditut ikerlanean.

Hausnarketan sartu baino lehen, ez nuke aipatu gabe utzi nahi euskara ikerketa antropologikoan erabiltzearen garrantzia, gure mundu-ikuskeratik antropologia egin nahi badugu (1).

2. ANTROPOLOGO NATIBOAREN FIGURA: BERTAKOA, BERTATIK

XVI. mendetik XX. mendera arte, kanpotik deskribatzea izan da ezaugarri nagusia etnografian. Esporlatzaileek, misiolariak, administrazioaileak eta merkatariek horrela egin zituzten beren narrazio exotikoak. XX. mendeko antropologiaren berrikuntzetako bat bertakoen ikuspegia kontuan hartzea izan da. Ideia hau Malinowskirengandik datorkigu, egile horrek garrantzi handia eman

(1) Ildo honetan Teresa del Valle honako hau azpimarratzen du: *“Es preciso que la persona que conceptualice en Euskara se exprese en esta lengua si es que se quiere llegar a una antropología endógena, entendiendo por ésta aquella que puede reflejar, no solamente la expresión, sino la conceptualización de una forma de existir concreta”*. (1981:142)

baitzian antropologia egiteko modu honi: antropologo atzerritarra bertara joan, bertako hizkuntza ikasi eta bertakoen kulturaren murgildu, haien mundu-ikuskerara ezagutzeko eta horien interpretaziora hurbiltzeko.

Azkeneko urteetan erronka berri baten aurrean aurkitzen gara. Zer gertatzen da antropologoa bertakoa denean? Ezin al ditu bere kulturaren interpretazioak egin? Bertakoa edo kanpokoa izan behar du antropologoak? Horietako zeinek du objektibotasun handiagoa gizartearen deskribatzeko eta interpretatzeko?

Antropologian luzaz uste izan da bertakoez ezin dutela behar den objektibotasuna eta distantzia zientifikoa izan beren lurraldean ikerketak egiteko. Bestaldetik, ezin dugu ahaztu “bertako”-en kategoria diskurtso kolonialistaren parte garrantzitsua izan dela.

Euskal antropología ere erronka teoriko berri honetan murgilduta dago. Haren historiaren hiru aro nagusitan egin diren ikerketak *bertako* zein *kanpoko* antropologoaren ikuspegitik burutu dira (2). Beraz, hemen ere galdera bera izango litzateke: Horietako zeintzuk aztertu dituzte euskal gaiak objektibotasun handienaz?

Eztabaidan sartzeko, Teresa del Valleren iritziak (1981) ekarriko ditut lan honetara, ikerketa antropologiko batean bertakoa izanik, zein zailtasun eta abantaila dauden kanpotik azaltzeko. Antropologo honek abantaila gisa, ikerlanarekiko hurbiltasuna aipatzen du, eta, oztopo gisa, distantzia zientifikoa mantentzeko zailtasunak (3).

Badira, baina, bestelako iritziak ere. Davydd Greenwood antropologo iparramerikarraren iritziak (1993) bertako antropologoaren lanak arrisku handiak ditu. Egile horrek lehentasuna ematen dio kanpoko antropologoari, interpretazioan duen distantzia zientifikoagatik objektibotasun handiagoaz egin omen dezakeelako ikerlana (ibid.:5-53). Zulaikak salatzen duen moduan, Greenwooden ustez antropologo amerikar batek bere gizartearen aztertzeko kultur-erlatibismoa eta neutralitate zientifikoa erabil ditzake, baina hori, berriz, ezinezkoa da

(2) Zenbait antropologoren iritziak (Zulaika: 1996, Fdz. de Larrinoa: 2001) euskal antropologiaren historia hiru arotan sailka daiteke. Lehenengoa, *Hiru aro klasiko*en garaia: Aranzadi, Barandiaran eta Caro Baroja. Bigarrena, *Etnografia berrien* garaia: Douglass, Greenwood eta Ott antropologo atzerritarak. Eta hirugarrenean, Barandiaranek sortutako *Etniker* taldearen jarraipenaz gain, *Antropologia soziala eta kulturalaren* garaia, azken urteetan eta gaur egun ere unibertsitatean ikasi duten antropologoak: del Valle, Azkona, Apalategi, Mendez, Zulaika, Fdz. de Larrinoa... Lehenengoan, kultura materialaren bilketa eta deskripzioak egin ziren, eta baita datuen eduki sozio-historikoen bilketa eta azterketa ere. Bigarrenean, XX. mendeko 60ko hamarkadan antropologo anglofonoek B. Malinowskyk ekarritako *tokian tokiko* ikerlan intentsiboa behaketa partehartzailea. Antropologo atzerritar horiek gaurkotu zuten euskal antropologia nazioarteko gizarte eta kultur antropologiaren teoria berrien ikuspegitik (estruktural-funtzionalismoa). Hirugarrenean, antropologoek beren ikerlanetan barne-harreman sozial eta kulturalak jaso eta nolabait interpretatu edo aztertu nahi izan dituzte. Garai honetan enfoko planteamentu teoriko eta metodologiko berriak sortu dira.

(3) “*Un estudio antropológico realizado desde dentro de la propia cultura tiene las ventajas de la cercanía al objeto estudiado, y al mismo tiempo las dificultades de establecer la suficiente distancia científica*”. (Teresa del Valle, 1981:140)

Estatu Espainiarreko batentzat, eta are gehiago Euskal Herriko batentzat (Zulaika, 1996:189). Neurri bikoitz hori *natibismoaren* erretorikan datza. Antzekoa izan zen ohiko neurri bikoitzeko diskurtso kolonialista: atzerritar antropologoei zegokien esatea zein mailatan zeuden bertakoak. Haren arabera, antropologoak ziren unibertsalitate, objektibotasuna eta progresoaren baloreen jabe. *Bertakoen* kontzeptu horrek antropologoaren eta ikertzen dituen sujetoen asimetriak sortzen ditu. Horrela, bertakoak mugiezineko kontzeptu baten barruan geratzen dira. Antropologoak, aldiz, bere baitan aldakortasuna darama batean: bata negatiboa, bestea positiboa. Eta horrela, bertakoa beheko kategorian geratzen da beti.

Bestalde, Zulaikarentzat (ibid., 187) *bertakoen* ikuspegiaren azpian dagoen arazoa gizarte batean bertakoen ikuspegi bat bakarra balitz bezala hartzea da. Bere ustetan, antropologiak kuestionatu egin beharko luke *natibismoaren* diskurtsoa, esentzializatutako konstruktua den neurrian. Ez dago bertakoen ikuspegi bat bakarra, asko baizik. Aniztasun egoera horretan, antropologoak ikuspegi bakarra bilatu nahi izatea barregarria da. Beraz, bertakoen aniztasuna kontuan hartzea da garrantzitsuena (4).

Horren lekuko biolentziari buruz dauden bertakoen bertsio diferentek jartzen ditu, adibide bezala. Zein da horretan diskurtso narratiborik objektiboena? Nola erabakitzen du antropologoak bertako zein ikuspegi hartu? Ildo horretatik jarraituz, Zulaikaren ustez, beharrezkoa da gatazka egoera batean antropologia-ikerketak ikuspegi anitzak izatea; hortaz, ezagupen objektua deskribatzea, eztabaidatzea, zalantzan jartzea eta baita berritzea ere maila askotan, nahiz eta zeregin zaila eta kontraesankorra izan (5).

Zulaikak (ibid.:193) bere egiten du gatazka batean etnologoaren lanaren neutralitateari buruz Kertzerrek duen iritzia. Egile honek dio polarizazio nabarmena ematen den testuinguruan behatzaile partehartzaile lana aurrera ateratzea, jarrera neutrala definitzen saiatzea dela, rol hori posible ez den testuinguruan (6).

(4) “Claramente, la noción del nativo no es de mucha ayuda y prescribir lealtad al punto de vista del nativo carece de significado. Aun peor, la premisa de que existe un punto nativo compartido por todos puede de hecho resultar un obstáculo insalvable para estudiar las diferencias en la dinámica social de ese grupo. En resumen, semejantes formas de inclusión cultural son selectivas y represivas para los nativos cuyas varias formas de diferencia quedan reconstituidas como la identidad de un punto único”. (Joseba Zulaika, 1996: 187)

(5) Joseba Zulaikak honako hau proposatzen du: “Todo trabajo antropológico que merezca tal nombre debe describir, cuestionar, problematizar, reconstituir a diversos niveles el tema de estudio que sea. La cuestión final es si, como antropólogos, debemos comprometernos con una perspectiva única, ya sea académica, política, o nativista, o por el contrario debemos esforzarnos por una pluralidad de perspectivas y discursos. Semejante multiplicidad de puntos de vista y tramas narrativas es particularmente necesaria en situaciones de conflicto. Es ésta una tarea difícil y contradictoria”. (1996: 192)

(6) “Llevar a cabo trabajo de participación observante en un contexto de aguda polarización sociopolítica quiere decir esforzarse en definir una posición no partidista en un contexto en el que no es posible semejante rol”. (D. Kertzer, 1980:21)

Honela, zenbait antropologo bi taldetan kokatzen dira jatorri senaren aurrean: erasotzaileak/defendatzaileak, chauvinistak/dogmatikoak, autonomia bai/autonomia ez, natibismoa/unibertsalismoa. Askotan gertatzen da diskurtso unibertsalista mantentzen dutenek estatu zentralistaren aldeko patriotismoa erakustea, nahiz eta eurek ez duten horrela ikusten. Zulaikaren iritziz, bai natibismoa, arrazionalismoa, eta baita unibertsalismoa ere oztopo dira, egiaren jabe izatearen aldarrikapena izan baita beti boterearen estrategia. Hori dela eta, Comellesen eta Praten ekarpenak (Comelles eta Prat, 1993:21) aipatzen ditu Zulaikak (1996:190) egokitzen. Horien ustez, diskurtso dikotomiko honetatik kontraesanak besterik ez dira azaleratzen, eta horiek Espainiako antropologiaren garapen atipikoaren zentzua eta logika ulertzea oztopatzen dute (7).

Eztabaidarekin jarraituz, Denis Labordek (1999) galdera asko planteatzen ditu etnologiaren objektibotasuna eta etnologoaren kokapenari buruz *Etnologia gerra garaian* artikuluan. Parisko tribunal baten aurrean euskal iheslari bati egindako epaiketaren inguruan egiten ditu gogoetak. Adibide jakin batetatik abiatuta, galdera orokorrak jartzen ditu mahai gainean. Etnologoak gatazka sozialetan interesa jartzen badu, non kokatzen da bera? Epailleak defendatzen duen konstituzioaren alde edo presoaren ideologiaren alde? Bere ustez, etnologoak munduko sistema desberdinen konfrontazioa esplizitatu behar du: botere banaketak, historia, legeak..., eta justizia nola egiten den ulertu (ibid.: 3-12).

Laborderen iritziz gure konpromiso pertsonalak gure ikergaia hautatzera bultzatzen gaitu, eta beharrezkoa dugu urrutiratzea, etnologoak dituen tresnak erabili ahal izateko. Etnologoak distantzia kritikoa mantendu nahi du, baina barruan dago. Nola konpondu erronka hori? Labordek dio ez zaigula posible giza egoerak Jainkoaren lekuan bageunde bezala aztertzea, benetako kontua ez baita erabakitzea zein bide den analisi egiazkoago batera eraman gaitzakeena. Maila apalago batean gakoa litzateke bide hauetariko bakoitzak zein galderari erantzuten dion ulertzea (ibid.: 3-8).

Josep Llobera antropologoak, *La identidad de la antropología* liburuan (1990), honako hau adierazten du: antropologian uste izan dela kultura osotasun bezala deskribatzeko modurik hoberena antropologo arrotz batek egin dezakeena dela (ibid.:38). Bere ustetan, bertako/kanpoko eztabaida hori sinplista da, batak bestearekin erlazio sinbiotikoa duelako. Oso zaila da kanpoko antropologo bat kanpoko kultura bat aztertzen aurkitzea bertakoen ikuspegia kontuan hartu gabe, eta baita hori bezain zaila ere, bertakoen diskurtsoa kultura europarrak eta eredu zientifiko-sozialez bereziki *kutsaturik* gabe aur-

(7) "Desde este discurso dicotómico lo único que emerge son contradicciones que nos impiden, a nuestro juicio, comprender la lógica y el sentido del desarrollo atípico de la antropología en España". (Comelles eta Prat, 1993, 21 orr.)

kitzea (ibid.: 89). Antropologian esan izan da bertako batek bere kultura deskribatu nahi badu, bere gizartearen kulturatik eta mentalitatetik urrundu behar duela, azterketa atzerritarra balitz bezala egiteko. Lloberaren ustez, gaurko gizarte konplejei dagokienez, bertakoak abantaila dauka, bere hizkuntza, kultura eta historia ezagutzen dituelako. Baina abantaila horri konpetentzia eta prestakuntza akademikoa gehitu behar zaizkio, eta hori ez da beti gertatzen (ibid.: 90). Bere iritziz, antropologoak *Bestea* aztertzen jarraitu behar du, baina gero eta hurbilago dagoen *Bestearengana* hurbilduz (ibid.: 124).

Zulaika Lloberaren iritzi berekoa da, eta bertako ikertzaileen partetik parte-hartze handiagoa izatearen garrantzia azpimarratzen du. Horiek hobeto ezagutzen dute kultura hori eta gaitasun handiagoa dute ñabardurak bereizteko eta eguneroko bizimoduari buruz datu espezifiko gehiago emateko. Horrela, bertakoak bagara, hoberena litzateke barrutik deskribatzea, bertakoaren papera bertakoen artean kuestionatuz. Kanpokoak bagara, gure ikerlanetan dauden boterearen asimetriak egon behar dute gure gogoeten ardatzean. *Bertako/kanpoko* diferentzia horiek markatzea, mugak eraikitzea ez da egokia. Zulaikak proposatzen du diferentzia horiek albo batera uztea, antropologoek lana beti transkulturala dela onartzeko (Zulaika, 1996:194). Gainera kontuan hartu behar da kultura guztietan nahasketa dela ezaugarririk nagusienetako bat; gaur egun kultura pururik ez dago eta.

“Especializar las diferencias culturales y políticas entre “ellos” y “nosotros” hasta el grado de formar polos autónomos y mutuamente excluyentes, impide la adopción de estrategias dialécticas y la creación de formas más complejas. Las estrategias de identidad no tienen por qué ser encuadradas en una lógica de oposiciones binarias. “El momento esencializador es débil porque naturaliza y deshistoriza la diferencia, confundiendo lo que es histórico y cultural por lo que es natural, biológico y genético”. (Zulaika, 1996:194-195).

Finean, bertako/ kanpoko diskurtsoaren azpian antropologia barruan dagoen dialektika agertzen da. Batetik, distantzia analitikoa, eta, bestetik, antropologoaren parte-hartzea eta ikerlanarekiko enpatia.

3. ANTROPOLOGOAREN LANAREN DESMITIFIKAZIOA

Gregory Batesonekin (1936) eta Monica Wilsonekin (1950) agertzen da antropologian kultura bat kontatu edo azaltzearen kezka. Nork hitzegiten du? Norekin? Noiz? Galdera horien atzean antropologoa agertzen da: berriemaileen erantzunak lotuta daude egiten zaizkien galderekin. Lekuan lekuko ikerlanetan antropologo eta berriemaileen arteko parte-hartze lana ageri da. Antropologoak berriemaileei buruz idazterakoan, ez du bakarrik berriemaileekin duen harremana islatzen, baizik eta bere esperientzia propioari dagokiona ere.

Antropologiaren dialektika hori aztertzen duen liburu garrantzitsua dugu Rabinow-en *“Reflexiones sobre un trabajo de campo en*

Marruecos” (1992). Liburu horretan egileak Marokon egindako ikerketari buruzko gogoeta egiten du, eta baita antropologiari buruzkoa ere. Horrela, antropologoak bere buruari buruz duen irudiaren mito deuseztatzen du. Antropologoaren lanaren desmitifikazioa ekartzen du alde askotatik begiratura: bere motibazioak, antropologoak behatzaile bezala lehen zuen erabateko sinesgarritasuna, antropologoaren kokapenaren birkontsiderazioa bere berriemaileekiko, eta testuinguru berezi horretan informazioak jasaten dituen distortsioak. Beste mito bat ere deuseztatzen du: berriemailearena, alegia. Rabinowek erakusten duenez, ezagupena eraikitzean ezagupen objektua aldatzen da. Beraz, subjektua eta objektua aldatzen dira. Bestalde, lortzen den ezagupenik handiena norberaren ezagupena eta ulermena da, eta hori bestearengandik datorkigu:

“Cuando el antropólogo entra en una cultura, adiestra a la gente para que le objetive la vida existente en su propio mundo. En todas las culturas, por supuesto, existe con anterioridad un cierto grado de objetivización y autorreflexión. Pero es muy poco frecuente esta traslación explícita y consciente a un medio externo. El antropólogo da lugar a una duplicación de la conciencia. Por lo tanto, el análisis antropológico debe incorporar dos hechos: primero, que nosotros mismos nos situamos a través de las preguntas que hacemos y la forma en que intentamos comprender y experimentar el mundo; y segundo, que lo que recibimos de nuestros informantes son interpretaciones, igualmente delimitadas por la historia y la cultura. Por consiguiente, los datos que recogemos están mediados por partida doble, en primer lugar por nuestra presencia y después por la imagen de segundo orden que exigimos de nuestros informante”. (Rabinow, 1992:114)

Zenbait antropologoren ikerlanetan (Elenore Bowen, Georges Balandir, David Maybury-Lewis), ikerketa akademikoarekin batera, desmitifikazio inkonzienteak agertu dira, tokian tokiko ikerlanetan jasaten diren penak eta pozak azaltzerakoan. Horregatik izan zuen sekulako eragina Malinowskiren egunkariak 1967an argitaratu zenean (8). Nigel Barley antropologoarena ere oso ospetsua izan da, honek ironiaz eta umorez tratatzen duelako gaia *El antropólogo inocente* liburuan (1989) (9).

Rabinowen aburuz (1992), giza-ikerketen esparruan ezagupenaren esperientzia intelektuala izateaz gain, emozionala eta morala ere bada.

4. ANTROPOLOGOAREN BIZIPENAK TESTUAN

(8) MALINOWSLI, Bronislaw: 1989 *Diario de campo en Melanesia*, Jucár, Gijón. Egunkari hau Ginea Berrian eta Trobiand uharteetan idatzi zuen polonieraz, 1914-1915 eta 1917-1918 urte bitartean. Bera hil ondoren aurkitu zen, 1942an, baina 1967ra arte ez zen argitaratu: *A Diary in the Strict Sense of the Term*, Routledge and Kegan Paul, London, 1967.

(9) Nigel Barleyk tokian tokiko ikerketa antropologikoa Camerungo *dowago* herrian burutu zuen 1978an. Londresera itzuli ondoren tesia aurkeztu zuen, baina bere ustetan maila pertsonalean sentitutako eta gertatutako guztia ikerlan horretan isladatzen ez zenez, bizi izandako penak eta pozak bere lankideei folioetan irakurtzeko utzi zien. Sekulako arrakasta izan zuenez, 1983an Britaniar Museoko Argitalpen Mintegiak liburuxka batean argitaratu zuen.

Ikerlan akademiko batean antropologoaren depresio, tristura, kezka eta agresibitateaz ez dela ezer esaten salatzen du Rabinowek. Egilea ez dago ados egiten denarekin: antropologia egiteko ezinbestekoa da tokian tokiko lanean aritzea; baina, ondoren, daturik objektiboenak aurkezten dira bizipenik handienak isilduz. Rabinowek ez ditu, haatik, ez bere etnozentrismoa, ez eta gainerako pasioak ere ukatzen; onartu egiten ditu eta aurre egiten die bere ikerlanetan.

Nik neuk ere, antropologia eremuan ikasle gisa izan ditudan esperientzien artean, erronka hau bizi izan dut euskal antropologo bati buruzko ikerlan bat egiterakoan (10). Aurkeztu beharreko lan akademikoaren eta bizi izandakoaren arteko kontraesanak, hain zuzen. Ikerlanean antropologo baten biografia, bibliografia eta pentsamolde antropologikoa uztartu behar nituen. Berriemailearekin ordu luzeetan izandako elkarrizketaren bitartez informazio handia jaso nuen; horrez gain, nire aurrean sortu zen gatazka batek aukera eman zidan kontraesan larriez beteriko antropologoaren aldeak ezagutzeko. Ezagupen sakona erdietsi nuen, baina ezin izan nuen nire lanean islatu, berriemailearen intimitatea errespetatzeko, eta batez ere, gatazka handiagorik ez sortzeko. Adostasun eza sortu zitzaidan nekienaren eta irakasleari aurkezpenerako kontatu beharrekoaren artean. Rabinowek aipatu bezala, testu akademikoaren eta bizipenen arteko bereizketak ezin gozatua ekarri zidan, gehien sentitutakoa kontatu gabe utzi bainuen.

5. EGILEAREN SUBJEKTIBIT ATEA ETA TESTUAREN OBJEKTIBO TA- SUNAREN ARTEAN DAGOEN HARRE - MAN ESTUA

Rabinowen iritziz antropologia zientzia interpretatzailea da, eta humanitatea du aztergai, *Bestea* kontzeptu gisa begiratuta. Bizi dugun munduaren eraginpean dago: alde batetik, norberaren kulturarena eta berri emailearena; bestetik, bion biografiena, eta, azkenik, unean uneko teorien eta gatazken. Beste era batean esanda, tokian tokiko lanaren eraketa intersubjektibitatearen prozesua da.

“Que los hechos están fabricados, contruidos, que las observaciones no son independientes de la teoría, que el etnógrafo y sus informantes colaboran en un trabajo de interpretación conjunto, en el que el informante propone al etnólogo, siguiendo una muy especial retórica de la presentación, las “explicaciones” que inventan en función de sus mutuas expectativas y a costa de un verdadero esfuerzo teórico, sobre el supuesto extraordinario de la situación de interrogación misma”. (Rabinow, 1992:152).

Ikerketak lan partzialak dira. Objektibotasun zientifikoz aztertzen saiatuko den arazo baten ikuspegi subjektiboa da, inoiz objektibotasun zientifikoko hori lortuko ez den arren. Hortaz, egokiagoa izango litza-

(10) Joxemartin Apalategi irakasleak emandako *Euskal Antropologiaren historia* irakasgaia gainditzeko lana: *Jose Mari Satrustegi. Bi begidun begi bakarren artean*, Gizarte eta Kultur Antropologia, 2. ikasturtea, EHU, Donostia, 2001-2002 ikasturtea.

teke objektibotasuneranzko prozesua dela esatea. Hala eta guzti ere, Rabinowen ustez datuen estatus epistemologikoa kontuan hartzen badugu, posible dela ulermen transkultura lortzea (11).

Ildo honetan, Euskal Herrian izan ditugun antropologo klasikoek ere objektibotasunari buruzko zenbait gogoeta egin zituzten. Aranzadik Barandiaranen *Breve historia del Hombre Primitivo* (1933) liburuaren sarreran irakurleei eskatzen diena adierazgarria da, hain zuzen. Antropologo honek dio, ikerketa zientifikoetan *beharbada* eta *agian* hitzen benetako zentzua ezinezkoa dela saihestea, eta uste du egungo zientzia ezagutzetan baieztapenak egi-mailetara ez iristez gain, eztabaidagarriak ere badirala; eta egi erlatiboak direla soilik, *lege* hitzez izendatuz arau partzialak besterik ez direnak (12).

Rabinowek egiten dituen antropologiari buruzko gogoetak antropologia sinboliko eta interpretatzailearen egilerik garrantzitsuarengandik datozkio, Geertzengandik alegia. Antropologo ipar-amerikar horrek, *El antropólogo como autor* liburuan (1989), kultur antropologian antropologoek idazteko duten eran zentratzen du bere interesa. Antropologiaren azterketa testu bezala hartzen du. Ordura arte, testu antropologikoen eraikuntzak ez zuen kezka handirik sortu. Geertzek dioenez, beldurra dago antropologia ikerketa testu literario gisa aztertze (ibid.:13). Ikerketa antropologiko bat aztertzerakoan, baina, testu literario bati egiten zaizkion galdera berberak egin behar zaizkio: Nondik dator? Nork idatzi du? Noiz? Zein da kontestu pertsonala eta soziala? Zein asmoz? (13).

Geertzek azaleko ikerketaren azpian zer dagoen aztertu nahi du, zeren bila dabilen egilea modu konzientean, nahiz inkonzientean. Zein lotura duen testuak egilearekin (14). Berarentzat egileak bi gauza bakarrik berma ditzake: bere sinadura eta diskurtsoa egiteko modu

(11) "Esto no implica en forma alguna que la comprensión transcultural resulte imposible. En tanto tengamos en cuenta el diferente estatus epistemológico de los datos que recibimos, no nos estaremos bloqueando la comprensión". (Rabinow, 1992:114)

(12) "que no prescindan del sentido que realmente tienen las palabras "probable, quizás", hoy por hoy, en el estado actual de la ciencias y otras semejantes; las afirmaciones científicas unas veces no llegan a la categoría de verdades y son muy discutibles y discutidas; otras veces son verdades relativas con no menor fundamento que las pronunciadas "ex cathedra" por especialistas de otras ciencias, atreviéndose a llamar leyes a las que no son más que reglas parciales; en todo caso el lector científico debe ser tan verdaderamente modesto como el autor y no convertirse en discípulo dogmatizador. Se han de tomar las afirmaciones de prehistoria y etnología (y no menos las biológicas y geográficas) "cum grano salis", como dicen los alemanes latinistas, es decir, con un "hasta cierto punto" y "por lo que hoy sabemos". Telesforo de Aranzadik idatzitakoa Joxe Migel Barandiaranen liburuaren sarrerarako, Itziarren, Urtiaga lezean, 1933ko uztailaren 12an. (Barandiaran, 1933)

(13) Michel Foucaulten iritziak autore-funtzioari buruz literaturan honako hauek dira: "El significado que se le adjudica, y el estatuto o valor que se le concede, dependen siempre del modo en que respondamos a estas preguntas... Como consecuencia, el autor-función desempeña hoy un papel importante papel en nuestra percepción de las obras literarias". (1979: 149-150)

(14) Clifford Geertzek (1989) lau antropologo ospetsuren zenbait lan aztertzen ditu: Claude Lévi-straussen *Tristes Trópicos* (1955), Edward Evans-Pritcharden *Operations on*

propioa. Egile horrek zenbait datu interesgarri ematen ditu egilearen erosotasun faltaz: testu zientifikoak norberaren biografian oinarrituak egin nahi direnean, zein zailtasun dauden benetako historia batean, nola konbinatu objektibotasuna eta subjektibotasuna; beraz, nola mantendu testuarekiko distantzia analitikoa hurbileko gaia denean (ibid.:19).

Geertzen ustez (ibid.:16) oso garrantzitsua da erritual baten inpresioa prosaz transmititzen jakitea. Egile horrek azaltzen du zein literatur dilema dagoen deskribapen parte-hartzailean. Horrela mintzatzen zaigu behatzaile-partehartzaile deskribapenari buruz: “*Los etnógrafos necesitan convergerse no sólo de que verdaderamente han “estado allí”, sino de que de haber estado nosotros allí, hubiéramos visto lo que ellos vieron, sentido lo que ellos sintieron, concluido lo que ellos concluyeron*” (Geertz, 1989:26).

Ildo horretan, ikerlan bat egiterakoan behar den distantzia analitikoa mantentzeko esperientzia sakona izan nuen nik *Antropología Simbólica* irakasgaietan. Nire nebaren hiletak-ospakizunen azterketa hautatu nuen irakasgaia gainditzeko lanerako (15). Erronka barne-ikuspegi intimoa eta ebaluazio zientifiko konbinatzea zen. Nola lor zitekeen objektibotasun handiena errelato intimo batean, gaiarekin harremana oso estua izanik? Arrazoi horregatik, erritual horren interpretazioa niretzat zaila zen. Distantzia txikiegia zen, eta konpromisoa, berriz, handiegia. Dialektika horretan murgilduta egon nintzen lana burutu arte. Erronka hori gainditzeko, nire lehenengo erabakia neba zela ez jartzea izan zen, ezin bainuen inplikazio hori jasan, lana burutzeko. Bigarrenik, kanpoko behatzaile parte-hartzailearen papera hartu nuen; barrukoa izan arren, kanpoko izango banintz bezala deskribatzen eta interpretatzen saiatu nintzen. Horrela, behatzaile eta behatuaren arteko tentsioa bizi izan nuen, bi egoeretan egon bainintzen. Ikerlana eginez ezagutu nuen zein literatur dilema dagoen deskribapen parte-hartzailean, zein zailtasun dauden ikerlanarekiko hurbiltasun handia dagoenean.

Urtebete pasa ondoren, nebaren hiletak zirela jarri ahal izan nuen lanaren lehenengo orrialdeetan. Orain, antropologiari buruz zenbait irakurketa egin ondoren konturatzen naiz hasieratik egin behar nuela

the Akobo (1940-1941), Bronislaw Malinowskiren *A diary in the Strict Sense of the Term* (1967) eta Ruth Benedicten *El hombre y la cultura* (1967) eta *El Crisantemo y la espada* (1974). Geertzek adierazten digu egile hauek agerian aztertu nahi duten ikerketa-lanen azpian badagoela beste zerbait, helburu izkutua, alegia. Geertzentzat Claude Lévi-Straussen testua, hostoz hosto osatutako testu bat bezalakoa da, eta horrela azter daiteke, bata bestearen gainean kokaturiko idazketa genero diferenteetan arreta ezarri; Evans Pritcharden lanean, berriz, gizarte afrikararen ezaugarriak azaltzeko erabiltzen dituen teknika erretorikoak nabarmendu behar dira. Malinowskiren lanean aztertzen ditu antropologoaren *ni*-a eraketaren perspektibatik testu etnografikoaren barruan eta Benedictenak amerikar kulturari egin nahi dion kritikatik bi kultur kontrajarriak aztertuz. (15) Txemi Apaolaza irakasleak emandako Antropologia *Simbólica* irakasgaia gainditzeko lana: *En busca de nuevos ritos para asimilar la muerte*, 1. ikasturtea, Gizarte eta Kultur Antropologia, EHU, Donostia, 1998-1999 ikasturtea.

hori, sarrera modura, norik egiten zuen ikerlan hori eta zergatik ulertzeko. Geertzek eta hainbat egilek ikerlanetan ezinbestean bete behar den printzipioa kontsideratzen dute: *“Estudiar desde el principio las etnografías desde las páginas donde se describe la puesta en escena, las intenciones y la autopresentación”* (Geertz, 1989:20). Beraz, ezinbestekoa da zehaztea, zein ezaugarritatik idazten den, kontuan hartzeko, zein diren norberaren mugak: norberaren esperientziak, erabiltzen dituen teoriak eta baita aurreiritziak ere.

Nire esperientziaren arabera esan dezaket ikerlan bat egiterakoan, nahiz eta distantzia zientifikoa zailtasunak izan, hurbiltasun eta inplikazio afektiboa tartean dagoenean oso aberasgarria izan daitekeela transmisio ona lortzeko, harreman estua dagoelako ikerlanarekiko (16).

Era honetako kezka eta erronkak bestelako gaitan ere ageri zaizkigu. Demagun, emakumeek jasaten duten erasoei buruzko ikerketa proiektu bat, non ikertzaileetako batzuk eraso horien biktimak izan diren. Galderak berberak dira: Posible al da erasotuak izan direnek gai horri buruzko ikerlan bat objektibitatez tratatzea? Mante al daiteke behar den distantzia zientifikoa gaiarekiko? Alde batetik, eraso horiek jasandako ikertzaileek sentsibilitate berezia eta ezagupen sakonagoa izango dute gaiarekiko eta berriemaileekiko, antzeko gertaerak eta ondorioak jasateak aukera gehiago emango dizkietelako datu esanguratsuak lortzeko. Horrela, informazio hurbila eta sakona lortuz, benetako arazoaren arrazoiak hurbilduko lirateke, konponbideak bilatzeko. Beste aldetik, ikertalde barruan ikergaiarekiko inplikazio emozionalik ez duten ikertzaileek lor dezaketean distantzia analitikoak egokia izan daiteke ikerlana burutzeko, antropologiak ikertzeko eskeintzen dizkigun metodo eta teknikak sustatuz.

Antropologoen artean jarrera anitzak daude bertako/kanpoko eztabaida honi buruz. Hasieran aipatu bezala, antropologiaren historian luzaz uste izan da bertakoek ezin dutela euren kulturaren interpretaziorik egin objektibotasunez. Behar den distantzia analitikoak jartzeko sortzen da zailtasunik handiena. Hala ere, bertako antropologoak gaiarekiko duen sentsibilitateak eta ezagupenak (hizkuntza, historia, errealitate soziala eta kulturala) interpretatzeko aukera handiak ematen dizkio. Horregatik, gaitasun handiagoa dauka ñabardura eta datu espezifikoa eskaintzeko.

6. ONDORIO GISA

(16) Hurbileko gaiak aztertzerakoan sortzen diren tentsio eta zailtasunei buruz adierazgarria da Teresa del Valle (1981:141) azaltzen duena: *“Tomar los rituales como vehículos del hecho diferencial con toda la carga emocional, ideológica que puedan tener. Las posibilidades de interpretaciones se multiplican. Se acentúa la tensión entre la ventaja de estar inmersa como investigadora en la realidad propia, y al mismo tiempo, la excesiva proximidad emocional al problema. Esto puede hacer más difícil el establecer la necesaria distancia científica”*.

Zenbaitzuren iritziz (Zulaika, Llobera, Laborde...), antropologia barruan dagoen diskurtso dikotomiko hori, dialektika hori, sinplista da. *Bertako/kanpoko* mugak eraikitzea ez da egokia, eta horrekin apurtu egin behar da, ikerketa antropologikoa transkulturala dela onartzeko. Muga horiek gainditzeko, honakoa proposatzen digute: ezagupen objektua deskribatzea, eztabaidatzea, zalantzan jartzea eta berritzea maila anitzetan. Horrela, ikerketa zientifikoa edozein perspektibatatik egitea posible izango lirатеke: bertakoa bazara, zure papera bertakoen artean kuestionatuz, eta, kanpoko bazara, bertakoekin sortzen diren botere asimetriak aztertuz.

Berriro ere, antropologoa eta antropologiari buruzko Llobera eta Laborderen hausnarketak ekarri nahi ditut ikerlan honetara. Lloberaren ustez antropologoa izatea ezinbestekoak diren gizakiari buruzko zenbait galdera planteatzea da, eta horiek era zientifikoa erantzuten saiatzea. Era berean, antropologiaren premiazko lana gizakia bere aniztasun egoeran azaltzea dela dio. Azalpen hori perspektiba askotatik egitea objektiboagoa eta aberasgarriagoa izango litzateke. Labordek dioen bezala, kontua ez baita erabakitzea zein bide den posible bide guztietatik, analisi egiazkoago batera eramán gaitzakeena. Gakoa litzateke bide hauetariko bakoitzak zein galderari erantzuten dion ulertzea.

Bukatzeko, *bertako/kanpoko*, *hurbileko/urruneko* eztabaida honetan, antropologian ikasle gisa ikerlanak egiterakoan, norberaren hurbileko gaiekin lotzea oso interesgarria eta aberasgarria izan daiteke ikas-prozesuan. Hurbilekoa ezezaguna izango balitz bezala aztertzeak, geure gizartearen errealitate kulturala eta soziala hobeto ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen digu; bide batez, gizaki guztion errealitate sozialean eta kulturean sakontzen da. Agerian dago Barandiarani Alemaniako irakasle hark esan ziona, eta gaur egun ere balio berbera daukana: “*Sakon ezazu zure herrian eta unibertsalitate iritsiko zara. Guztion iturria bat baita*”. Era berean, hurbileko gaietan sakonduz lortzen den ezagupenik handiena, Rabinowek esaten duen modura, norberaren ezagupena eta ulermena hobetzea da. Azken finean antropologia egitea baita: “*bestea*” aztertuz, nork bere galdera sakonak erantzutea. Hainbat antropologok adierazten duten modura, antropologoa bere burua ezagutu nahian dabil. Antropologoak behatzen duen errealitate soziala bizi du eta ezin du hori alde batera utzi zientzia antropologikoa egin nahi badu.

Ikerlan hau *Gizarte eta Kultur Antropologia* ikasketetan *Euskal kultura-II* irakasgaia gáinditzeko burutu zen EHU-ko *Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean* (Donostia) 2001-2002 ikasturtean. 2003an Aitzpea Leizaola Egaña irakaslearen tutoritzapean ikerketa hau “*Sancho el Sabio Fundazioa*”-ren VI. Unibertsitate mailako ikerketari lehiaketara aurkeztua izan zen.

7. BIBLIOGRAFIA

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxe Martin: 1981, "Introducción a la historia crítica de la producción oral popular vasca", I. partea, *Ethnica*, 17. zenb., Centro de Etnología Peninsular e Hispanoamérica, Consejo Superior de Investigaciones Científicas (SIC), Barcelona, 7-47 orr.

AZKONA, Jesús: 1981, "Notas para una Historia de la Antropología Vasca: Telesforo de Aranzadi y José Miguel de Barandiarán", *Ethnica*, 17. zenb., Centro de Etnología Peninsular e Hispanoamérica, Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC), Barcelona, 63-84 orr.

BARANDIARAN, Joxe Migel: 1933, *Breve historia del hombre primitivo*, (Extracto del Anuario de Eusko Folklore, XI, 1931), Vitoria.

BARLEY, Nigel: 1989, (1. argitalpena. 1983an), *El antropólogo inocente*, Anagrama, Barcelona.

COMELLES eta PRAT: 1993, "El estado de las antropologías: Antropologías, folclores y nacionalismos en el Estado español", *Antropología*, 21 orr.

DEL VALLE, Teresa: 1981, "Visión general de la antropología vasca", *Ethnica*, 17. zenb., Centro de Etnología Peninsular e Hispanoamérica, Consejo Superior de Investigaciones Científicas (SIC), Barcelona, 124-147 orr.

FDZ. DE LARRINOA, Kepa: 2001, *Antropologia soziokultur - alaren nondik-norakoak Hego Euskal Herrian*, Argitaratu gabeko hitzaldia, Eusko Ikaskuntza XV. Kongresua: "Euskal zientzia eta Kultura, eta sare telematikoak" (2001.11.28-30), Donostia.

FOUCAULT, Michel: 1979, "What is an autor?", J.V. Harari (ed), *Textual Strategie*, Ithaca, Nueva York, 149-150 orr.

GEERTZ, Clifford: 1973, *La interpretación de las culturas*, Gedisa, Barcelona.

GEERTZ, Clifford: 1989, *El antropólogo como autor*, Paidós, Barcelona.

GREENWOOD, Davydd: 1993, "Las antropologías de España: Una propuesta de colaboración", *Antropología*, 3. zenb., 5-33 orr.

KERTZER, D.: 1980, *Comrades and Christians; Religious and Political Struggle in Communist Italy*, Cambridge University Press, Cambridge.

LABORDE, Denis: 1999, "Etnologia gerra garaian", *Uztaro* 30. zenb., UEU, Iruñea, 3-12 orr.

LLOBERA, Josep R: 1990, *La identidad de la antropología*, Anagrama, Barcelona.

RABINOW, Paul: 1992, *Reflexiones sobre un trabajo de campo en Marruecos*, Júcar, Madrid.

ZULAIKA, Joseba: 1996, *Del Cromañon al Carnaval. Los vascos como museo etnográfico*, Erein, Donostia.